Bestelako Xedapenak

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

3738

213/2010 DEKRETUA, uztailaren 27koa, Finantzen Euskal Institutuari Ekarpen SPE SA sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko baimena ematen diona.

Ekarpen SPE SA sozietateko akziodunen Ezohiko Batzar Nagusiak erabaki zuen, 2009ko abenduaren 4an egindako bileran, sozietatearen kapitala 8.054.000 eurotan gehitzea, 8.054.000 izendun akzio berri jaulki eta zirkulazioan jarriz; eta akzio bakoitzaren balio izendatua euro batekoa izaki. Jaulkipen sari orokorra 32.216.000 eurokoa da, eta gaur egunekoek dituzten eskubide politiko eta ekonomiko berdinak dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Finantzen Euskal Institutuak, Ekarpen SPE SA sozietatearen bazkide direnez, lehentasunezko eskubidea dute akzio berriak harpidetzeko, Sozietate Anonimoei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretuaren 158. artikuluan agindutakoarekin bat. Sozietateko akziodunen hitzarmena izenpetu zen 2008ko uztailaren 28an, non ezartzen baita bazkide sustatzaileek hitzartutako ekarpenak bazkideok zuzenean edo bere Taldeko sozietateen bidez bideratu ahalko direla; edo, erakundeetako bazkideak izanez gero, dagokion administrazioari atxikitako sozietate, elkarte, fundazio, erakunde edo ente publikoen bidez.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuak honako hau ezartzen du 110.1 artikuluan: enpresa-ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, aurretiaz, Jaurlaritzaren Kontseiluaren baimena beharko da, dekretu bidez emana, eta horretarako proposamena, berriz, ondareari buruzko eskumenak dituen saileko buruak eta, zuzenean nahiz bitarteko erakunde baten bidez, sozietatea loturik duen edo loturik izango duen saileko buruak egin beharko dute, biek batera. Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta ematen den egunetik aurrera izango du indarra.

Kapitala ordezkatzen duten baloreak eskuratzeko baimena ematen duen dekretuak nahitaez adieraziko ditu, non eta doako eskuratzea ez den, sozietatearen xedea eta EAEk, zuzenean nahiz zeharka, zenbateko partaidetza-portzentajea izango duen sozietatean.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

3738

DECRETO 213/2010, de 27 de julio, por el que se autoriza al Instituto Vasco de Finanzas la toma de participación en la ampliación de capital de la sociedad Ekarpen SPE, S.A.

La Junta General Extraordinaria de Accionistas de la sociedad Ekarpen SPE, S.A. acordó, en su reunión del día 4 de diciembre de 2009, ampliar el capital social de la sociedad, por importe de 8.054.000 euros, mediante la emisión y puesta en circulación de 8.054.000 acciones nuevas, nominativas, de un euro de valor nominal cada una de ellas, con una prima de emisión global de 32.216.000 euros, con los mismos derechos políticos y económicos que las actualmente existentes.

La Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y el Instituto Vasco de Finanzas, en su calidad de socios de la sociedad Ekarpen SPE, S.A., tienen el derecho de suscripción preferente de las nuevas acciones, de conformidad con lo previsto en el artículo 158 del Real Decreto Legislativo 1564/1989, de 22 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Sociedades Anónimas. El Pacto de Accionistas de la sociedad, firmado en 28 de julio de 2008, en su apartado 5.9, establece que «Las Aportaciones comprometidas por los Socios Promotores podrán acometerse por estos directamente o a través de sociedades de su Grupo o, en el caso de los Socios Institucionales, a través de sociedades, asociaciones, fundaciones, instituciones o entes públicos adscritos a la administración correspondiente…».

El artículo 110.1 del Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley del Patrimonio de Euskadi, dispone que la adquisición de bienes y derechos integrantes del patrimonio empresarial requiere autorización previa del Consejo de Gobierno, por Decreto, a propuesta conjunta del Consejero o Consejera competente en materia de patrimonio y del Consejero o Consejera del Departamento al que, directamente o a través de un ente instrumental, se encuentre o vaya a encontrarse vinculada la sociedad. El Decreto será publicado en el Boletín Oficial del País Vasco, sin perjuicio de su eficacia desde la fecha en que se dicte.

El Decreto que autorice la adquisición de valores representativos de capital, salvo que se trate de adquisición a título gratuito, indicará necesariamente el objeto social y el porcentaje de participación, directa o indirecta, que tendrá la Comunidad Autónoma en la sociedad.

Ekarpen SPE SA sozietatearen helburu soziala enpresak sustatzea eta bultzatzea izango da, beren kapitalean aldi baterako parte hartuz eta Bizkaiko Lurralde Historikoko sozietateen zergei buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 60.1.b artikuluan xedatutako eragiketak eginez.

Finantzen Euskal Institutuko Administrazio Kontseiluak, 2010eko ekainaren 22an, 7.000.000 euroko kapital-gehikuntzan parte hartzea onartzeko Erabakia hartu zuen (izenduna eta jaulkipen saria barne). Horregatik, Eusko Jaurlaritzara zuzendu behar da, Finantzen Euskal Institutuari baimena eman dakion euro banako 1.400.000 akzio izenpetzeko –5.600.000 euroko jaulkipen sariarekin–, Ekarpen SPE SAk izendun 8.054.000 eurotan –32.216.000 euroko jaulkipen sariarekin– egingo duen kapital-gehikuntzan; eta, aldi berean, ordaintzeko erabakia ere hartu zuen.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko uztailaren 27an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Baimena ematea Finantzen Euskal Institutuari Ekarpen SPE SAren zazpi milioi (7.000.000) euroko kapital gehikuntza -Akziodunen Batzar Orokorrak erabakitakoa- izenpetzeko, zeinetatik 1.400.000 euro izendatuak diren eta 5.600.000 euro jaulkipen sarikoak. Baimena ematen da, halaber, ordainketarako, zeina Akziodunen Batzar Orokorrak Kapitala Gehitzeko Erabakian adierazitako moduan gauzatuko baita. Euskal Autonomia Erkidegoak -Institutuaren bidez- Ekarpen SPE SA sozietatean izango duen partaidetza zuzena edo zeharkakoa % 28koa da.

2. artikulua.– Baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren titularitatekoak diren akzioen ordezkariei, kapital-gehikuntzaren ondorioz, Ekarpen SPE SA sozietatearen estatutuen aldaketa onartzeko.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau onartzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko uztailaren 27an.

Jarduneko lehendakaria,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

El objeto social de la sociedad Ekarpen SPE, S.A. es la promoción o fomento de empresas mediante la participación temporal en su capital y la realización de las operaciones previstas en el artículo 60.1.b) de la Norma Foral 3/1996, de 26 de junio, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Bizkaia.

Habiendo adoptado el Consejo de Administración del Instituto Vasco de Finanzas, con fecha 22 de junio de 2010, el Acuerdo de aprobar la participación en la ampliación de capital, por un importe de 7.000.000 de euros, incluidos nominal y prima de emisión, procede dirigirse al Gobierno Vasco para que conceda autorización al Instituto Vasco de Finanzas para suscribir 1.400.000 acciones de un euro cada una, con una prima de emisión de 5.600.000 euros, en la ampliación de capital que llevará a cabo la sociedad Ekarpen SPE, S.A., por importe de 8.054.000 euros, de nominal con una prima de emisión global de 32.216.000 euros, y proceder a su desembolso.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Economía y Hacienda, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 27 de julio de 2010,

DISPONGO:

Artículo 1.– Autorizar al ente público Instituto Vasco de Finanzas la suscripción de la ampliación del capital social acordada por la Junta General de Accionistas de la sociedad Ekarpen SPE, S.A., por importe de siete millones de euros (7.000.000), correspondiente a 1.400.000 euros de nominal y 5.600.000 euros de prima de emisión, y a su desembolso, que tendrá lugar en la forma señalada por la Junta General de Accionistas en el correspondiente Acuerdo de Ampliación de Capital. La participación, directa e indirecta a través del Instituto, de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la sociedad Ekarpen SPE, S.A. será del 28%.

Artículo 2.– Se autoriza a los representantes de las acciones titularidad de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi para prestar su conformidad a la modificación de los estatutos sociales de Ekarpen SPE, S.A. como consecuencia de la ampliación de capital.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos el mismo día de su aprobación.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 27 de julio de 2010.

La Lehendakari en funciones,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.